

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2013ko martxoaren 5a. IX. urtea. 2.555. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Ahalegin berezia egingo du Gipuzkoa Encounterrek lan arloaren orientazioan

Tolosan 600 lagun elkartu dira hiru egunez informatikaren eta bideojokoaren party-an, eta antolatzaileek «oso balantze ona» egin dute **02**



Usabal kiroldegiak hartu du aurten ere Gipuzkoa Encounter. I. LURKIZU



Unai Otaño eta Joseba Otaegi aizkolariek txapela jantzita, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. IBONERRAZU

Bertsopaper lehiaketa antolatu du Hernandorena kultur elkarteak

Zizurkilgo taldeak Pello Mari Otaño bertsolariaren memoria mantendu nahi du lehen aldiz egingo den lehiaketarekin **03**

Atletismoan eta duatloian, Gipuzkoako hiru txapeldun berri eskualdean

Amaia Seguroiak eta Oihane Vazquezek atletismoan jantzi dute txapela, eta Luis Maria Urizarrek duatloian **06**

Elkar oso ongi hartzen dutela nabarmendu dute Otaegik eta Otañok

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa bigarren urtez jarraian irabazi dute Joseba Otaegi zizurkildarrak eta Unai Otaño ibartarrak; Nazabal eta Zubiaga bikoteari minututik gorako aldea aterata jantzi dute txapela **07**

36ko gerran fusilatu eta desagertu zirenak omendu dituzte Beran

Tolosaldeko hainbat pertsona Berako hilerrian hilobiratuta daude; beraien ahaideak eta herrietako udal ordezkariak izan dira omenaldian **05**



Familietako kideei agurra dantzatu zieten Beran eginiko omenaldian. HITZA

TOLOSARAKO INMARRUADA IKASTETXEA

HEZIKETA ZIKLOAK

Erri maila	Gei maila
<ul style="list-style-type: none"> • Errealitate laguntzailea • Formazio eta Pasaerako 	<ul style="list-style-type: none"> • Osoan Dokumentazioa • Diagnostiko Inadila • Errealitateak
	<ul style="list-style-type: none"> • Guretz Integrazioa • Haur Heziketas

ATE IBERIAK MARTXOAREN 7AN 15:30tan



Aurten %12koa izan da, urtetik urtera haziz doan emakumezkoen parte hartzea. I. URKIZU

Lan egitasmoei bidea ireki die Gipuzkoa Encounterrek

Lan esparruko orientazioan nahiz elkarlana sustatzeko jardueretan, ahalegin berezia egingo dute antolatzaileek aurrerantzean

«Oso balantze ona» egin dute, eta emakumeen parte hartzea igogin da

Itzea Urkizu Tolosa

Aisialdiari begirako jaia izatetik areago, igandean amaitutako Gipuzkoa Encounter egitasmu profesionalak bideratzeko parte izatera iritsi da, antolatzaileek nabarmendu dutenez. Pasa den ostiraletik igandera bitarte, 600 lagun inguru izan dira Usabal kiroldegian, eta arduradunek «oso balantze ona» egin dute aurten ere; gero eta emakume gehiagok parte hartu izana bereziki azpimarratu dute, gainera.

Bideojokoen gaia izan da,

2013ko Gipuzkoa Encounterreko ildo nagusia. Hasiara batean aisialdiari begirako produktua dirudienak, elkarlanerako eta lan mundurako hainbat ate ireki dizkie Encounterreko ia 600 parte hartzaileei: «Gipuzkoa Encounterrek ziberunibertsitate baten antzeko izaera du, parte hartzaileek sarean lan egin ondoren, elkarren artean jakintzak trukatzeko baitituzte», azaldu du party-ko Sabino San Vicente koordinatzaileak.

Bide honetan, horrelako egitasmoek hezkuntzari begirako auke-

ra asko eskaintzen dituztela uste du San Vicentek, «festa honetan izan direnek lanean aritzeko eta proiektu profesional berrietan murgiltzeko interesa erakutsi baitute».

Horrela beraz, eta etorkizunera begira, proiektu berriak sustatzeko jarduerak indartuko dituzte antolatzaileek. Uztailean ospatuko duten Euskal Encounterrean ekingo diote honi, eta besteak beste, robotikaren, bideojokoen eta arte digitalen esparruan ariko dira. «hazkuntza garaian baitaude».

Errekorren Encounterra

Orain arteko errekorra hautsi dituzte aurten, Gipuzkoa Encounterreko parte hartzaileek, izen-ematea ireki, eta 2 minutu eta 20 segundotan bete baitzituzten, Usabalgo eserleku guztiak. Guztira, 450 ordenagailu izan dira martxan, eta 600 parte hartzailek gozatu dute segundoko 1 GBeko abiadurako interneteko konexioaz.

Antolatzaileek oso gustura azaldu dute euren burua, eta 2013ko Gipuzkoa Encounterra «nota altuarekin» amaitu dela nabarmendu du Sabino San Vicentek: «Hilabeteak daramatzagu guztia prestatzen, eta oso pozgarria da gure helburuak lortu ditugula ikuste».

Besteak beste, Euskal Herriko superordenagailu handienari aurre hartu diote, hiru egunetan, Usabalgo 450 ordenagailuek: «Sare indartsua osatu dute, eta

700 tera disko gogor, 4.500 GHz-ko prozesatze gaitasuna, eta 1'8 tera-ko RAM memoria izan dituzte». Hornidura honek guztiak, horrela, Usabalgo barne sarean, ostiraletik igandera bitarte, 1,45 milioi giga mugitzea ahalbidetu die parte hartzaileei.

Gero eta emakume gehiago

Gipuzkoa Encounter jaia antolatzen hasi zirenez geroztik, gizezkoen parte hartzea altuagoa izan da beti, emakumezkoena baino. Urtez urte, ordea, hau ere aldatzen ari da datuen arabera, eta aurtengoan, parte hartzaileen %12a osatu dute emakumezkoek;

gutxi gorabehera, 72 izan dira, beraz. Hain zuzen ere, hauex azpimarratu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazio Gizarerako Sistemen zuzendaria den Lore Martinez Axpek, pasa den ostira-



Gipuzkoa Encounterrek, azken finean, ziberunibertsitate baten antzeko izaera du»

«Lanean aritzeko eta proiektu profesional berrietan murgiltzeko interesa erakutsi dute»

SABINO SAN VICENTE

Gipuzkoa Encounterreko koordinatzailea

leko inaugurazio ekitaldian: «Pozgarria da gero eta emakume gehiagok parte hartzen dutela jakitea».

Generoaren auzia, gainera, Gipuzkoa Encounter 2013ko jardueren artean protagonistetako bat izan da; larunbatean, bideojokoen esparruan parte hartze parekideaz hitzaldia eskaini zuten PantallasAmigas elkarterko Urko Fernandezek.

Besteak beste, teknologiaren adar honetan emakumeekiko tratu hobea landu beharra nabarmendu zuten Fernandezek solasaldian: «Bideojokoen industria lehen postuan dago mundu mailako aisiaren merkatuan, zinemaren eta musikaren aurretik, eta rol matxista zaharrak hor daude oraindik».

Gainera, egungo gazteen denbora libre gero eta gehiago bideratzen da bideojokotara, beraz, Urko Fernandezek arabera, industria honek erantzukizun garrantzitsua du: «Eredu parekideagoak transmititzeko arduratu dute, emakumeentzako jokoek sukaldaritzaren gisako gaiak izaten baitituzte ardatz; gizezkoen begirakoetan, berriz, emakumeak sexy edo bigarren mailako heroi moduan agertzen dira».

Informatikaz gain, lagun sareak ere bai Encounterren

I. Urkizu Tolosa

Ordenagailu eta bideojokoen mundua zaletasun duten parte hartzaileek bete ohi dituzte Usabalgo eserlekuak, Gipuzkoa Encounter ospatzen den hiru egunetan. Teknologiarik berrienaz gain, ordea, party batetik bestera egindako lagunekin berriz biltzeko egunak ere izaten dira hauek.

Leire tolosarra da, eta bideojokotako lehiaketetan parte hartzen duela azaldu du; Bilboko nahiz Tolosako party-etan egindako lagunak berriz ikusteko ere

aprobetxatzen ditu Gipuzkoa Encounterreko egun hauek: «Urte urte jendea ezagutzen dugu, eta harremanak sortzeko ere balio du Encounterren».

Odei bergararra, berriz, laugarren aldiz izan da Tolosako Encounterrean, eta besteak beste, jokoetan eta software-en inguruko kontuetan aritzen da: «Hemen gauden hiru ilara elkarrekin etorri gara, 25 lagun inguru, eta guztiok Encounterretan ezagutu genuen elkar. Azken finean, lagun asko egiten dira, bai».

• tolosa@hitza.info



Madinabeitia apaiza omenduko dute

Tolosako Olarrain auzoan Tomas Madinabeitia apaiza gogoan izango dute, ostegunean

I. Garcia Landa Tolosa

Tomas Madinabeitia apaiza gogoan izango dute hilaren 7an, osteguna, Tolosako Olarrain auzoan egingo dioten oroimen ekitaldian. Eskoriatzan jaioa, apaiz egin berritan Madinabeitia Tolosara etorri zen 70ko hamarkadan, eta bertako parrokiari, zein Urkizun eta Olarrainen izan zen. Gero misiolari joan zen, eta aurreko urrian gaitz txar baten ondorioz hil zen.

Tolosan egindako urteak gogoratu, Olarrain auzoko lagun eta adiskideek «oroimen ekitaldi xumea» egingo diote hilaren 7an, osteguna, 19:30ean.



Tomas Madinabeitia apaiza. HITZA

Egun horretan bere egonaldiak eta ibilbideak oroitzuz argazki erakusketa egingo da Olarrain auzoko elkartearekin, eta ondoren afarian parte hartu ahal izango dute bertaratuek.

• tolosa@hitza.info



Peñagarikano, Otañoen heriotzaren 100. urteurreneko bertso jaialdian. I. TERRADILLOS

Pello Mari Otaño oroitu duen bertsopaper lehiaketa antolatu dute lehen aldiz

Diasporako euskaldunei txoko berezia egin nahi izan die Zizurkilgo Hernandorena kultur elkarteak

Mikel Iraola Zizurkil

Pello Mari Otaño bertsolariaren memoria mantentzeko helburuarekin, lehen bertsopaper lehiaketa antolatu du Zizurkilgo Hernandorena kultur elkarteak.

Bertsolaritzaren historian sortzailerik garrantzitsuenetako bat izan zen *Kattarro* ezizenez ezagutua zen Otaño. Nonbait, asmaren eraginez-edo, bat-bateko bertsogintzan aritzeko nahiko arazo ematen zizkion ezarriak, eta hori dela eta, idatzizko bertsogintzan jardun zen zizurkildarra. Haren ibilbideari jarraiki, gai, neurri eta doinuei dagokienez askatasun osoa izango duen bertsopaper txapelketaren lehen edizioa antolatu du Hernandorena kultur elkarteak.

Adinaren arabera, bi mailatan banatu dute lehiaketa: hemezortzi urtetik beherako gazteak eta helduak. Parte hartzaile bakoitzak, nahi adina bertsopaper aurkeztu ditzake, baina gazteen berriz, lan bakoitzak gutxienez sei eta gehieneko hamar bertso izan beharko ditu. Helduen gutxienez bertso kopurua berriz, zortziko da, eta gehiengo, hamabikoa. Lanak aurkezteko azalduko, apirilaren 10a izango da. Sari banaketa, ordea, ia hilabete beranduago ospatuko da, Zizurkilgo

lehen egingo den bertso afariaren barnean. Irabazleek gainera, beren bertsoak kantatzeko aukera izango dute. Ia 1500 euro banatuko dituzte saritan: gazteen mailako irabazleak 250 euro jasoko ditu, eta txapeladunordeak, 100 euro. Helduen kasuan berriz, lehen sailkatuak 500 euroko ordainsaria izango du, eta bigarrenak aldiz, 250 eurokoa.

Diaspora ere kontuan

Lehiaketa, baina, ez da Euskal Herriari bizi direnei soilik zuzendutakoa izango. Izan ere, Otaño Ameriketara ere utzi zuen bere arrastoa, eta diasporako euskaldunak kontutan hartu nahi izan dituzte eurentzako beste maila bat eratuz. Argentinan bizi izan zen hainbat urtez euskal olerkaria. Lehen euskara irakaslea ere izan zen lur haietan, 1910ean Santa Fe-ko Rosarion bihotzeteok emanda zendu zen arte.

Harrez geroztik, eta beti ere Otaño ardatz izanik, harreman mantendu izan dute Zizurkilgo Argentinako zenbait euskal etxeekin. Esaterako, duela hiru urte, *Kattarro*-ren heriotzaren mendeurrena ospatu zuten. Hainbat ikerketa ere egin dituzte. Eta gaur egun, La Platako Unibertsitatean haren izeneko katedra bat irekitzeko lanetan dihardute Etxepare Institutuarekin. Bertsopaper lehiaketaren bidez, urte hauetan guztietan izandako lotura sendotzeko helburua du Hernandorena kultur elkarteak. Parte hartzeko deialdia euskal etxeen sarean zabaldu dute. Gazteen baldintza berak izango dituzte hauek.

↓ Baldintzak

BERTSOPAPER LEHIAKETA

- **Hiru maila.** Gazteen maila (hemezortzi urtetik beherakoa); helduen maila (1995ean edo aurretik jaiotakoak); eta Diasporako maila (Euskal Herriari kanpo bizi direnak, bereziki, Argentinakoak).
- **Lanak.** Gazte eta diasporako en mailatan, gutxienez sei eta gehienez hamar bertso idatzi beharko dira bertsopaper bakoitzeko. Helduen mailan, berriz, gutxienez zortzi, eta gehienez hamabi. Parte hartzaile bakoitzak, nahi adina bertsopaper idatzi ahal izango ditu.
- **Gaia.** Neurria, doinua eta gaia libreak izango dira.
- **Bertsoak.** Jatorrizkoak eta argitaratu gabek izan behar dute *pedromariotano@zizurkil.net* helbidean, zein paperean jasoko dira honako helbide honetan: Hernandorena Kultur Elkarteak. Pello Mari Otaño Bertsopaper Lehiaketa. Iriarte etxea, Pello Mari Otaño plaza, 1. 20159, Zizurkil.
- **Epea.** Lanak bidaltzeko azken eguna, apirilaren 10a, izango da.
- **Sariak.** Gazte eta diasporako en mailan, lehen sariak 250 euro eta bigarrenak 100 euro. Helduen mailan, lehenak 500euro eta bigarrenak, 250euro.
- **Sari Banaketa.** Maiatzaren 4an izango da Zizurkilgo egingo den bertso afarian.

Irudia ◊ Tolosa



ESPERIENTZIA ABERASGARRIA

Andoainean egindako VIII. Piano Jaialdian, Tolosako udal musika eskolatik 20 pianista aurkeztu ziren, bana eta lau eskuetara. Esperientzia aberasgarria izan zela azaldu dute udal musika eskolatik, bai ikasle eta baita irakasleentzat ere, eta «zorionik beroenak» eman dizkiete parte hartu zuten ikasleei, eta «bide horretatik jarrai dezatela» eskatu diete. HITZA

→ Laburrak

'Emakumea, osasuna eta murrizketak' hitzaldia, gaur

TOLOSA Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, *Emakumea, osasuna eta murrizketak* hitzaldia izango da, gaur, 19:00etan. Tolosaldeko Bilgune Feministak eta Herrirak antolatu dute, eta Tolosako Aranburu Jauregian izango da. Hizlari lanetan Mati Iturralde ariko da.

Kotxe karabana manifestaziora deituz

IRURA Anoetako Bai Euskal Herriarik deituta, gaur, 18:00etatik aurrera, kotxe karabana egingo dute. *Nazioa gara, geurea ikurrina, inposaketarik ez!* lelopean larunbatean egitekoa den manifestazioa girotu asmoz, Anoeta, Irura eta Herrialde artean egingo dute kotxe karabana. Hau dela eta, 18:00etan Irurako plazatik abiatuko den karabanarako deia luzatu nahi diete hiru herrietako herritarrei.

Ibarra



GIRO POLITA GAZTETXEAREN URTEURREN FESTAN

Ibarra GAZTETXEAREN 20. urteurrenaren harira, hainbat ekitaldi antolatuta zuten asteburuan Ibarra GAZTE Asanbladak, Ostralean, Pablo Hasel kataluniararekin solasaldia izan zuten, eta larunbat gozozan gazteboiek edeki-igaro zuten Zifko koloretzua ikusitu narekin. Eguna osatzeko, Subegin elkartu ziren GAZTETXIKI igaro diren belaunaldi desberdinak, eta ondoren, bertso-pitxo izan zuten bertsozaleekin. Jai giroak zuzeneko emaldeen jarraila izan zuten gauean.

Zizurkil



ERAKUSKETA ZABALIK

Iztia Nazabal margolari altzatuaren erakusketaren inaugurazioa egin zuten herenegun Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean, 60 lagun inguru elkartu ziren, aristik bere obra aurkeztu zuten, pasta eta le markoaren destatzeko aukera izan zuten, eta sabal ditza ikusizuna eskalari zuten. Emakumearen Egunaren harira antolatutako ekitaldien barnean, gaur mahai inguru izango da, 19.00etan, Atxulondoko bertan. Emakumea eta literatura ariko dira.

MAUKA GAURKO ESKARTZA

12 lagunentzat
2 gau harrizko
euskal baserri
tipiko batean

Albena Landetxea
Bilbo
9088 (Arria) (Euzkadi)
945 242 111 (07) 716 01
www.mauka.eu

528€
berria

Tolosa



ZUMARDIAUNDIA EZAGUTUZ

100 gaztebo inguru elkartu ziren iragan ostrialean Tolosaldeko Zumardiaundiari egin zuten Zuhaitz Egunean. Tolosaldeko Samaniego ikastetxe eta Ibarra Uzturpe ikastetxeak ikasleek 20 magnolia landatu zituzten. 18 Magnolia Elisabeth motakoa eta beste bi Magnolia Vulcan motakoa. Bestalde, txapala talerra ere egin zuten, eta Zumardiaundiaren biodibertsitatea ezagutu zuten.

Tolosa



PEROT-EKO LANGILEEI ELKARTASUNA

Ehunka lagun elkartu ziren larunbatean Tolosan. Zizurkilgo Huyck Wangner (Perot zena) lanbategi lagileei elkartasuna adierazi asmoz. *Perot ez izal! Ez dugu etsiko!* lelopean manifestazioa egin zuten Alde Zaharra zeharkatuz. Langileek aste horietan esperio dute kalitatez gutunak jasotzea, eta une horietan salaketak jarriko dituzte lanbategi adierazi dute ELA sindikatutik.

Ikaztegieta



IKAZTEGIETA ETA ABALTZISKETA GARAILA

Gipuzkoako Herri Txikietako Ligako aurtengo txapelidunak ikaztegieta eta Txalburuk dira. Herenegun jokatu zituzten finalak ikaztegietan, eta Berjarmenian Liztorrak taldeak 7-0 irabazita ikaztegietak (behean) gailendu ziren, eta alebinetan, beriz, Leabururi 12-0 irabazita Txalburuk (goian) izan zen garaila. Garaikurrak banatzen Leire Olaberría ikaztegietak txirindularia, Herri Txikietako Aretto Futbol elkarteak kibak, euskal selektiboko jokalariek, Yessine Salisi nazioarteko onpeliera eta udalako ordezkariak izan ziren. Giro pitxo izan zela nabarmendu dute antolatzaileek.

Tolosaldea



OMENALDIA BERAN, FUSILATUEN ALDE

Berako Udalak antolatuta, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte Espainiako Gerra fusilatuen eta desagertuak gogoratzeko. Ekitaldi nagusia herenegun egin zuten omenaldia izan zen. Lore eskalintza egin zuten hilerrian, eta bertako hobian oroitari bat jarri zuten. Ekitaldian, Tolosaldeko udalako hainbat ordezkari ere izan ziren. Asteburua, Tolosa, Armasa-Villabona eta Zizurkilgoak kasu, izan ere, herri horietako hainbat pertsona bertan hilerbitatu zituztela frogatu dute.

Anoeta



KORRIKARAKO GIROTUZ

Korrika Kulturala egin zuten larunbatean Anoetan. Loatzo muska eskolako eta Anitz dantza taldeko kideekin emanaldi izan zen, eta jende asko bertaratu zen. Kuku elkarteak 76 lagun elkartu ziren bazkaltzeko, eta Korrikako materiala ere zozketatu zuten. Bazkaltzean jolasak egin zituzten, eta luntzean kantu jira egin zuten. Oso giro polita egin zela nabarmendu dute antolatzaileek.

Tolosa



HAMARGARREN URTEMUGA

Hiru kide ikaztebeak urteroko bertso-afaria egin zuten ostralean. San Esteban elkarteak, Jexux Mari Peñagarikano, Biñente Gorostidi eta Gorka Tolosa bertsozaleak aritu ziren bertsoetan. Gai-jartzaile moduan, beriz, afarian parte hartu zuten oro aritu zen. Hirukioren hamargarren urteurrena ospatzen duen urtean, bertso ere giro «paregabeaz» gozatu ahal izan zuten bertsozaleek.

Egin HITZAREN HARPIDEDUN
OSTIALDIAZ HITZA
MATEZKOAREN 33ra arte
ETA JASO

EKAIN sagardoa
6 Botilako
kaxa berriz

Hiru kide egin zuten bertso-afaria
Ostraleko Alde Zaharrean,
14 pertsona ospatzen
asteburu
baterako
egunaldia
ZIZURKILGO DUGU

Hitzaren hitza
902 42 02 01
hitzaren@hitzaz.com

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

LEHEN MAILAKO BINAOKO PILOTA TXAPELKETA	
Ligaxka, 11. jardunaldia	
Bengoetxea VI.a-Beroiz	22
Xala-Barriola	15

Sailkapena	J	I
1. Irujo-Zabaleta	11	9
2. Bengoetxea VI-Beroiz	11	8
3. Olaizola II-Zabala	11	7
4. Titin-Merino	11	5
6. Ezkurdia-Zubieta	11	4
7. Berasaluze-Albisu	11	4
8. Xala-Barriola	11	4
9. Arretxe-Begino	11	3

Hurrengo jardunaldia	
Arretxe II-Begino	
Bengoetxea VI.a-Beroiz	
Xala-Barriola	
Olaizola II-Ibai Zabala	

BIGARREN MAILAKO PILOTA TXAPELKETA	
Ligaxka, 8. jardunaldia	
Olazabal-Arruti	15
Tainta-Galartza	22

Sailkapena	J	I
1. Gorka-Zezilio	8	7
2. Apeztexea-Larrinaga	8	7
3. Rico IV-Untoria	8	5
8. Olazabal-Arruti	8	1

Hurrengo jardunaldia	
Elezkano II-Larunbe	
Olazabal-Arruti	

BETERANOEN XARE TXAPELKETA	
Juan Manuel-Olano (0)	5/12
Lasa-Beita (2)	15/15

SHARE ELKARTEA SARIA	
Lizaso-Vinuesa	40
Iturbe-Urkola	35
Santano-Artola	40
Limousin-Sarasola	27

ARETO FUTBOLA	
HIRUGARREN MAILA	
22. jardunaldia	
Ibarra-Bilbo	6-1
Mallabia-Hirukide	7-1
Egintza-Santurtzi	4-5
Soloarte-Laskorain	6-6

Sailkapena	
1. Aurrera V.	55p
2. Ibarra	50p
3. Bilbo	45p
4. Santurtzi	43p
5. Hirukide	40p
6. Golierrri	37p
7. Laskorain	32p
8. Inter Eder	31p
9. Soloarte	30p
10. Mallabia	26p
11. Santurtzi	23p
12. Zarautz	23p
13. Buruntza	23p
14. Egintza	22p
15. Sestao	16p

Hurrengo jardunaldia	
Goierrri-Ibarra	
Laskorain-Egintza	
Hirukide-Soloarte	

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA	
24. jardunaldia	
Trintxerpe-Tolosa	0-2

Sailkapena	
1. Oiarzun	53p
2. Real Union	51p
3. Hernani	51p
7. Tolosa	34p

Hurrengo jardunaldia	
Tolosa-Oiarzun	

SASKIBALOA

LEHEN MAILA	
20. jardunaldia	
Lizuan.com	51
Bide Bide	46

Sailkapena	
1. Asesoria SAF	15-5
2. Askartza	14-6
3. Atletiko Sn Sn	14-6
7. Bide Bide Donostia	11-9

Hurrengo jardunaldia	
Bide Bide Donosti-Araberrri	

SOKATIRA

GOMA GAINEKO 8X8KO EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA, 600 KILOTAN	
Bigarren jardunaldia, A multzoan	
1. Napurrak	6 puntu
2. Ibarra	5 puntu
3. Amaieur	3 puntu

Sei finalistak	
1. Napurrak	20 puntu
2. Ibarra	17 puntu
3. Sokarri	15 puntu
4. Abadiño	15 puntu
5. Iparralde	13 puntu
6. Murueta	10 puntu

GOMA GAINEKO 8X8KO EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA, 500 KILOTAN	
Lehen jardunaldia	
1. Ibarra	2,5 puntu
2. Badaiotz	2,5 puntu
3. Bizindar	Puntu bat

AIZKORA

BINAKAKO URREZKO AIZKOLARIEN TXAPELKETA Finala	
Otaño-Otaegi	24 min 24s
Nazabal-Zubiaga	25 min 37 s

DUATLOIA

XXII. EIBARKO DUATLOIA	
Gizonezkoen sailkapena	
1. Oier Ariznabarreta	1.00.43
2. Jonathan Gonzalez	1.00.54
3. Luis Maria Urizar	1.00.57

Emakumezkoen sailkapena	
1. Ainara Patxeko	1.12.25
2. Veroni Dominguez	1.12.27

Eibarko duatloi proba	
Gipuzkoako Txapelketa	
jokatuko egokitu zuten. Lehen gipuzkoarra Luis Maria Urizar izan zen helmugan, ondorioz, billabonatarra da Gipuzkoako Duatloi txapelduna.	

Amaia Seguro, Oihane Vazquez eta Luis Maria Urizar, Gipuzkoako txapeldun

Pista estaliko atletismo probak Donostian jokatu dira asteburuan, eta duatloi txapelketa, berriz, Eibarren

Erredakzioa

Asteburuan Gipuzkoako Txapelketa absolutoa jokatu da Donostian. Elurra izan bada ere, jendea ez da beldurtu eta parte hartze handia izan da. Nola ez, han izan ditugu Tolosakoak ere giro ederrean korri egitera animatuz. Nabari da talde gaztea dela, eta helduagoekin lehiatzean maila gazteetan baina domina gutxiago eskuratu dituzte. Hala ere, emaitzak ez dira batera txarrak izan, eta batez ere neskak izan dira podiumera igo direnak.

Lasterketen ondoren, Tolosaldean Gipuzkoako bi txapeldun gelditu dira. Amaia Segurok 400 metroan Gipuzkoa mailan duen nagusitasuna erakutsi zuen, 58.30 segundotako markarekin, eta bere lehiakideei aukerarik eman gabe. Oihane Vazquez bi al-

diz igo zen podiumera. 1.500 metroan garaipena lortu zuen, larunbatean, nahiz eta marka ez oso ona egin, 4 minutu 57 segundo eta 66 ehuneneko. 800 metroan azken metroak arte lehiatu zuen garaipena, baina azkenean bigarren postuan sailkatu zen, bezperako esfortzuaren ondorioz, ziu-rrenik. Proba horretan bi minutu, 23 segundo eta 61 ehuneneko denbora markatu zuen.

Andrea Madera, bestalde, bigarren postuan sailkatu zen 60 metro hesietan, 9 segundo eta 48 ehuneneko lortuaz, eta Jone Purasek ere postu bera eskuratu zuen 3.000 metroan (12.23.49). Azkenik, bi brontzezko domina ondorengoek lortu zituzten: Irene Zalduak 1.500 metroko distantzian eta Irati Mitxelena gazteak salto hirukoitzean, 10,47 metrora iritsiz.

Hauetz gain, eskualdeko gazte txoek txapelketa bikaina burutu zuten. Ane Galarzak 60 metroan eta salto hirukoitzean bere marka hobetu zuen, eta Iñigo Puertak eta Aitor Plazaolak 60 metroan gauza bera egin zuten.

Txapelketaz aparte, pisu jaurti-

ketan, atleten markak hobetzeko parte hartze irekiko proba bat egin zuten. Junior mailan (6kg), Aitor Arraizak 13.86 metrora bota zuen pisua, bere helburua lortuz. Ander Lakuntzak, jubeniletan, gauza bera egin zuen, 5 kiloko pisua 12,10 metrora bidaliz. Nesketan, Maria Alvarezek bere marka hobetu zuen 3 kiloko pilotarekin 10,11 metro lortu ostean.

Duatloi txapelketa

Larunbatean Eibarren herriko duatloietan 22. edizioa lehiatu zen, esprint distantzian. Parte hartzaileek 5 kilometro korrika, 25 bizikletaz eta 2,5 korrika egin behar izan zituzten. Eibarko proban Gipuzkoako txapelduna nor izango zen ere erabakitzen zen, eta gizonezkoetan ohore hori Trigoi Triatloi Taldeko Luis Maria Urizar billabonatarrek lortu zuen, nahiz eta lasterketa hirugarren postuan amaitu. Probaren irabazlea Oier Ariznabarreta izan zen, eta Urizarri hamalau segundoko alde bakarrik atera zion. Emakumeetan Gipuzkoako txapeldun gisa, Ainara Pacheco gelditu zen.

Euskadiko finalera Aurrera Saiazeko hiru pilotari iritsi dira

Urdapilletak finala ostiralean jokatuko du Zornotzan, eta Eneko eta Igor Labakak igandean, Mungian

ostean: Larrea eta Erasun; Labaka eta Iruretagoiena, eta Artola eta Telletxea.

Txapelketa gehiago

Aurrera Saiazeko pilotariak bi partida jokatu zituzten asteburuan Udaberri Txapelketaren barruan, eta biak irabazi zituzten.

Jubeniletan, Urdapilleta-Otaegi 22-21 irabazi zuten Bergarako bikotearen aurka, eta seniorretan, Ariztimuño-Galarragak 22-13ko garaipena lortu zuten Beloki taldeko pilotarien aurka.

Gipuzkoako Txapelketari dagokionez, Zugasti-Elola Aurrera Saiazeko alebinek 14-16 galdutuzten Bergarako aurkako partida. Txapelketa honetan garaipena infaniletan etorri zen Aurrera Saiazentzat, Arrasateko bikotea 18-14ko emaitzarekin gaintu baitzuten. Bi partidak Bidaniako pilotalekuan jokatu ziren larunbatean.

Ibarrak 600 kiloko finala zaleen aurrean jokatuko du, larunbatean

A. Imaz Ibarra

Euskal Herriko sokatira txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu zen herenegun Urdulizen (Lapurdi). Goma gaineko 8x8ko 600 kiloko mailan, Napurrak taldea izan zen indartsuena. Garrantzitsuena, ordea, finalerako txartela lortzea zen, eta Ibarrak helburua lortu zuen, sailkapen fasea bigarren postuan amaituz. Final handi larunbat arratsaldean jokatuko da, Ibarroa Belabietan kiroldegian.

600 kiloko taldeekin batera, 500 kiloko bigarren jardunaldia jokatuko da hilaren 9an. Maila horretan, lehen tiraldiekin igandean hasi ziren, eta denboraldi honetako emaitza ohikoena ikusteko aukera egon zen Lapurdin: Ibarra eta Badaiotzen arteko berdinketa. Bi talde hauek pisu desberdinetan parean daudela erakusten dute behin eta berriz.

Aurkari indartsuagoak izan arren, txapela berriro ere Otaño eta Otaegirentzat

Otaegi zizurkildarrak eta Otaño ibartarrak minututik gorako aldeaz irabazi dute binakako finala

Asier Imaz

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa herenegun amaitu zen. Aurtengo edizioan iaz baino bikote indartsuagoak osatu dituzte antolatzaileek; hala eta guztiz ere, txapelak lehengo lekuan gelditu dira, hau da, Unai Otaño eta Joseba Otaegiren buruetan. Azken honen esanetan, aurkariaren maila altuagoa izateak poza ere areagotu egiten du.

Azpeitian jokatu zen binakako aizkora txapelketaren finala. Alde batetik, Otaño-Otaegi plaza-ratu ziren lehiara, eta bestetik, Nazabal-Zubiaga. Azken bikote hau jotzen zuten askok faborito, eta azken probara eurak iritsi ziren aurretik, baina une erabakigarrian eskualdeko bi aizkolariek nagusitu ziren, ordulariari buelta emanaz. Joseba Otaegi berak onartzen du faboritoak aurkariak zirela: «Nazabal hor egonda hori beti horrela izaten da. Hala eta guztiz ere, azken probara Zubiaga nekatuago iritsi zen, eta bikotean bat nekaturik badago eta aurkariak ondo baldin badaude, azken proban bakarrik ezin da ezer egin».

Aldea kontrolpean

Finala parean hasi zen Azpeitian. Lehen ariketan Otaño eta Otaegi nagusitu ziren, baina segundo bateko aldeaz bakarrik. 45 ontzako enborra 40 kolpetan moztu zuten eskualdekoek, eta aurkariak, 41ean. Kolpeak segundo bilakatzaren direnez ariketan, Otaño eta

Otaegi jarri ziren aurretik. Bigarren ariketan aldea sei segundotan handitu zuten ibartarrak eta zizurkildarrak. Lehen arazoak, ordea, zutikako ariketan etorri ziren. Otañori eta Otaegiri harra atera zitzaion, eta 22 segundoko galera izan zuten probaren amaieran. Otaegiren esanetan txapelketa guztian nahiko ondo moldatu dira zutikakoan, baina herenegun ar bat atera zitzaion enborrean. Hirugarren ariketa honetan galdutakoa, bosgarren goan berreskuratu zuten, zutikakoan eta etzandakoan. «Azken zatian Zubiaga nekatzen ari zela ikusi genuen, eta gu oraindik nahiko ondo ginen», dio zizurkildarrak.



Nazabal jokoan denean faborittoa izan ohi da, baina Zubiaga nekaturik iritsi zen bukaerara»

«Unai Otaño eta biok ongi moldatzen gara; badakigu zein den bakoitzaren lana»

JOSEBA OTAEGI
Aizkolaria

Otaegiren sentsazioak ordularian ere oihartzuna izan zuten. Laugarren ariketan Nazabal eta Zubiaga nagusitu baldin baziren ere, aldea 21 segundora bakarrik zabaldu zuten, eta azken ariketarako hori ez zen tartea. Bosgarrenean, gainera, parean gelditu ziren bi bikoteak eta dena azken ariketan erabakiko zela argi gelditu zen. Txapelketa osoan bezala, azken proban maila izugarria erakutsi zuten Otaño eta Otaegi. Moztu beharreko zortzi enborrak 12 minutu eta 22 segundotan moz-

tu zituzten, aurkariak baino minutu t'erdi azkarrago.

Txapelaren gakoetako bat iraupeneko ariketa honetan egon zela dio Otaegi zizurkildarrak: «Aurreko probetan bagenekien ondo moldatuko ginela, baina oker txiki batek diferentziak markatzen ditu, eta helburua azken proba euren gainean iristea zen». Txapela buruan noiz ikusi zuen galdetutakoan, Otaegik argi erantzuten du: «Bukatutakoan. Txandean alde egiten ari ginela ikusi genuen, eta horrek asko animatu gintuen».

Sei ariketa bukatu ondoren, Joseba Otaegi eta Unai Otañok minutu bat eta 13 segundoko aldea atera zuten Nazabalek eta Zubiagak osatutako bikoteari.

Joseba Otaegi zizurkildarrak eta Unai Otaño ibartarrak bikote sendoa osatzen dute, eta bigarren txapela hau ez da kasualitatea izan. Urrezko aizkolarien baldintzetara egoki moldatzen dira, eta Joseba Otaegik onartzen duen bezala, «elkar ongi hartzen dugu Unai eta biok, beti ondo moldatu gara eta badakigu bakoitzaren lanak zeintzuk diren». Horren adibide dira txapelaren ospakizunak. Azpeitiko finala amaitu ondoren, bi aizkolariek elkarrekin joan ziren bazkaltzera, lagun eta senideekin batera.

Apirilaren 21ean, apustua

Behin binakako txapelketa amaituta, aizkolariek banakakoan pentsatzen hasiko dira, nahiz eta berri ekonomikoak ez diren hain onak azken egunotan. Joseba Otaegik, ordea, badu aurrez beste zita garrantzitsu bat: Antonio Senosiainen aurkako apustua. Desafioa apirilaren 21ean jokatuko da, eta gelditzen den hilabete t'erdia apustua buru belarri prestatzen pasako duela dio Otaegik.



Otaño Otaegiren kolpeei begira, finaleko azken ariketan. IBONERRAZU

↓ Ariketaz ariketa

FINALA

KOLPEKA, 45 ONTZAKOIA

Otaño-Otaegi 40 s
Nazabal-Zubiaga 41 s

ERLOJUAREN AURKA

45 ONTZAKO BI ENBOR
Otaño-Otaegi 1 min 41 s
Nazabal-Zubiaga 1 min 47 s

ZUTIK 60 ONTZAKOIA

Otaño-Otaegi 2 min 44 s
Nazabal-Zubiaga 2 min 22 s

BI 60 ONTZAKO

Otaño-Otaegi 3 min 36 s
Nazabal-Zubiaga 3 min 30 s

45 ONTZAKOIA ZUTIK, ETA KANA ERDIKOA ETZANDA

Otaño-Otaegi 3 min 21 s
Nazabal-Zubiaga 3 min 24 s

ETZANDA LAU KANA ERDIKOA ETA LAU 60 ONTZAKO

Otaño-Otaegi 12 min 22 s
Nazabal-Zubiaga 13 min 53 s

AZKEN DENBORA

Otaño-Otaegi 24 min 24 s
Nazabal-Zubiaga 25 min 37 s

● Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JOXE AGIRREZABALA ARRUABARRENA

Herenegun hil zen, 81 urte zituela,
Eskelako eta Aita Santuaren Eskelakaren hartu ondoren.
- Golan begi -

Emaztea Maria Inaxioa, seme-alabak: Javier eta Lander Urtaza, Mariakari eta Jose Mari Mendizabal, Juan Mari eta Ainhoa Galaraga eta Maria Jesus; bilobak: Aritz, Luruz, Iker, Aritz, Etxepare, Etxebarria, Etxebarria, Etxebarria, Etxebarria, Etxebarria, eta gainerakoak.

Familia ikuspegiarekin eskatzen dituzte bere arimen alde eta GALARI eskaintza ZUZENEAN izan daitekeen erabilgarria den hiru-erakundearen bidez gortitu egiten diren. Eskerrik asko aipatu aurretik.

Lezama, 2013ko martxoaren 5a

Hilbidetarako bertan.

Oharra: Gortuzko Buzkaltzaren bidezkoan egongo da gaur 12:00ak arte.



19°
9°

GOIZA	LAINOTUA
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	21°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizalzeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agur

Mokaduak
jaten aditua

KILOAK!

Nutrizioan
aditua



NATUR HOUSE
Elikadura eta dietetikan adituak



Naturhousen metodoa berriz heztean oinarritutako elikadura da, eta pisua galtzeko irtenbiderik eraginkorrena eta naturalena da. Elikadura aditua den profesional bat jartzen du zure eskura. Astero dohako jarraipena egiten dizu eta psikologikoki emaitzak lortzen lagunduko dizu.

4.000.000 pertsona baino gehiagok bermatzen dituzte Naturhouse metodoaren emaitzak, bakarrak eta esklusiboak. Naturhouse, 2.000 zentro baino gehiago eta munduko 40 herrialdeetan.



www.naturhouse.com

Jamé gaitzazu Facebook orrialdean
www.facebook.com/SpainNaturHouse

ZURE NATURHOUSE:

Don Tello Kalea, 32 · GERNIKA
Tel. 946 253 205